

KOSTALDEKO IBILBIDEA SENDERO LITORAL

Euskaditik igarotzean, E9 "Europako Kostaldeko ibilbidea" mendiko ibilbide luze (GR) gisa seinaleztatuta dago. Ibilbide hauekin bat egiten du: GR 121* "Talaia ibilbidea" Gipuzkoan, eta GR 123* "Bizkaiko Bira" Bizkaian.

A su paso por Euskadi, el E9 "Sendero Litoral Europeo" se encuentra señalado como sendero de gran recorrido. Coincide con el GR® 121 "Sendero Talaia" en Gipuzkoa y con el GR® 123 "Vuelta a Bizkaia" en el tramo vizcaino.



GOMENDIOAK

Saia zaitez etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.

Planifikatu ondo etapak, eta diseinatu zure aukeren arabera.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Eraman beti behar den beste hornigai (ura, janaria, botikina, mugikorra ondo kargatuta, dirua, dokumentazioa...).

Errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

RECOMENDACIONES

Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.

Planifica bien las etapas y adapталas a tus posibilidades.

Lleva calzado y ropa adecuados teniendo en cuenta la predicción del tiempo.

Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, botiquín, móvil bien cargado, dinero, documentación...).

Respeto el entorno que visitas y al resto de senderistas.


EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

Pasaiaiko itsasadarra betiko txalupa tipikoan zeharkatu ondoren, itsaslabarreen zizelkatutako eskailera piko bat igo behar da Platako itsasargi misteriotsuaren bila joateko. Handik, ibilbidea sigi-saga doa Uliia mendiaren hegaletik, itsaslabar eta senda txiki ezkutuen gainetik, Kantauri itsasoaren ikuspegi ikusgarriak eskainiz, eta, atzean, Donostia hiririaren silueta ederra.

Tras cruzar la bahía de Pasaia en la típica motora, una empinada escalera esculpida en el acantilado asciende en busca del misterioso Faro de La Plata. Desde aquí un sendero serpentea por la ladera del monte Uliia sobre acantilados y pequeñas ensenadas escondidas, ofreciendo vistas espectaculares del mar Cantábrico y, al fondo, la silueta de la ciudad de San Sebastián.

11 km 663 m 4h 05' MIDE 1-2-2-3



MIDE

- 1 Ingurunean arriskuak egon daitezke
El medio no está exento de riesgos
- 2 Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak
Sendas o señalización que indica la continuidad
- 2 Zaldibideko ibilaldia
Marcha por caminos de herradura
- 3 3 eta 6 ordu arteko ibilaldi jarraia
De 3 a 6 horas de marcha efectiva

SEINALEZTAPENA SEÑALIZACIÓN GR® 121

- Ibilbidearen jarraipena
Continuidad del sendero
- Norabide aldaketa
Cambio de dirección
- Norabide okerra
Dirección equivocada

Bidezatia / Tramo PASAIA ► KUTRAIA

km 0 PASAI SAN PEDRO. Txalupa motordunean badia zeharkatu ondoren hasiko da etapa. Itsasorantz abiatuko gara eta Albaola Itsas Faktoriaren ondotik igaroko gara. Bertan, zuzenean ikus daitezke ontziak nola eraikitzen dituzten teknologia tradizionalarekin. Pasealekuaren amaieran, eskailera piko batzuk ditugu, eta Senoko zuloako itsasargira eramango gaituzte, ez ahaleginik gabe, aukera paregabea eskainiz portuko bokalearen ikuspegi ederrez gozatzeko. Arnasa berroneratu ondoren, gorantz jarraituko dugu berriro, La Plata itsasargira doan pista iritsi arte.

km 2 LA PLATA ITSASARGIA. Itsasargiaren sarrerako zelaigunetik bidexka bat abiatzen da. Bidexka hori kostaldearen gainetik doa, antzinako akueduktu baten hondakinen ondotik; Donostiako edateko uraren hornidura-sarearen aztarna dugu. Herri Ametza ikastolara iritsi baino lehentxeago, Donejakue bideari agur esan eta eskuinetik jarraituko dugu, itsaslabarren gainetik sigi-saga eginez, Kutraia iturri-garbitegi zaharrera iritsi arte. Sendatzeko ahalmena omen zuen hango urak.

km 0 PASAI SAN PEDRO. La etapa comienza una vez cruzada la bahía en la motora. Tomamos dirección hacia el mar para pasar junto a la Factoría Marítima Vasca Albaola, donde se puede visitar en directo la construcción de embarcaciones con la tecnología tradicional. Al final del paseo alcanzamos unas empinadas escaleras que nos conducen, no sin esfuerzo, al faro de Senoko zuloa, con unas inmejorables vistas de la bocana del puerto. Tras recuperar el aliento, retomamos la ascensión hasta alcanzar la pista que conduce al Faro de La Plata.

km 2 FARO DE LA PLATA. En la explanada de entrada al faro, parte la senda que, sobre la costa, discurre a tramos junto a las ruinas de un antiguo acueducto, vestigio de la red de suministro de agua potable de San Sebastián. Justo antes de alcanzar la ikastola Herri Ametza, nos despedimos durante unos kilómetros del Camino de Santiago y seguimos por la derecha, serpenteando sobre los acantilados hasta llegar a la vieja fuente-lavadero de Kutraia, a cuyas aguas se atribuían propiedades curativas.

KOSTALDEKO IBILBIDEA SENDERO LITORAL

EUSKAL KOSTALDEA COSTA VASCA

2

PASAIA ► DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

Km 11

663 m

4h 05'



EUSKADI BASQUE COUNTRY

PASAIA ► KUTRAIA



LEYENDA

E9 - GR® 121	Hondartza Playa	Taberna/Jatetxea Bar/Restaurante	Medikua Servicio médico
Beste GR batzuk Otros GRs	Ikuspegi panoramikoak Vistas panorámicas	Ostataua Alojamiento	Farmazia Farmacia
Donejakue Bidea Camino de Santiago	Eraikin erlijiosoa Edificio religioso	Denda Tienda	Tren geltokia Estación de tren
Natura 2000 sarea Red Natura 2000	Interesgunea Punto de interés	Diru kutxa Cajero	Museoa/Interpretazio-zentroa Museo/Centro de interpretación
Iturria Fuente	Intereseko monumentua Interés monumental	Ospitalea Hospital	Turismo bulegoa Oficina de turismo
Atsedengunea Area recreativa			





EZ GERATU EZAGUTU GABE! ¡NO TE LO PIERDAS!

Albaola Itsas Faktoria Pasai San Pedron dago, museo bihurtutako ontziola batean, eta itsasontzi tradizionalak eraikitzen ditu bisitarien aurrean, ia galduta dauden teknikak eta lanbideak berreskuratuz; adibidez, San Juan baleontzia, XVI. mendean Kanadan hondoratutako 28 metroko euskal baleontzia, UNESCOren aintzatespena jaso duena.



La Factoría Marítima Vasca Albaola, situada en un astillero convertido en museo en Pasai San Pedro, construye ante el visitante embarcaciones tradicionales recuperando técnicas y oficios casi perdidos; es el caso, por ejemplo, de la nao San Juan, un ballenero vasco de 28 m hundido en Canadá en el siglo XVI, cuya construcción ha obtenido el reconocimiento de la UNESCO.



La Parte Vieja de Donostia vibra entre bares, aromas y conversaciones. Sus estrechas calles, llenas de historia, son el escenario perfecto para una ruta de pintxos, donde cada barra ofrece verdaderas delicias gastronómicas en pequeño formato. Sumérgete en el ambiente y animate a probar una gilda, un pintxo de txangurro o una ración de tortilla, y no dejes de acompañarlo con un buen txakoli.

Bidezatia / Tramo KUTRAIA ► DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

km 6 ... **KUTRAIA.** Kutraiatik laster egingo dugu topo berriro Donejakue bidearekin. Tranbia zaharraren trazaduraren gainetik igarotzen da zati hori; tranbia hark Uliako gailurrean zegoen jolas-parkera erraz iristeko aukera ematen zien turistei eta txangozaleei XX. mendearen hasieran. Kontxako badiaren panoramikaz gozatu ondoren, Gros auzora jaitsiko gara eta Zurriola pasealekutik jarraituko dugu.

km 8 ... **ZURRIOLA.** Kursaal kongresu-jauregia igaro ondoren, Urumea zeharkatu eta itsasertzetik jarraituko dugu Pasealeku Berritik, Urgull mendia inguratuz. Mendi horren tontorrean antzinako gotorleku militar batzuk eta Jesusen Bihotzaren estatua daude. Itsaso zakarreko egunetan, olatuak ikusgarri bihurtzen dira inguru horretan, eta busti ere egiten dute portuan amaitzen den pasealeku hori.

km 11 ... **DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN**

km 6 ... **KUTRAIA.** Desde Kutraia pronto nos topamos de nuevo con la ruta jacobea. Este tramo discurre sobre el trazado del antiguo tranvía que a principios del siglo XX permitía a turistas y excursionistas alcanzar fácilmente el parque de atracciones que existía en la cima de Ullia. Tras disfrutar de la panorámica de la bahía de La Concha descendemos al barrio de Gros y seguimos por el paseo de La Zurriola.

km 8 ... **ZURRIOLA.** Tras pasar el palacio de congresos Kursaal, cruzamos el Urumea y seguimos la línea de costa por el Paseo Nuevo rodeando el monte Urgull, cuya cima alberga varias fortificaciones militares de tiempos pasados y una estatua del Sagrado Corazón. En días de mar bravo, el oleaje en esta zona se vuelve espectacular, llegando incluso a salpicar este paseo que desemboca en el puerto.

km 11 ... **DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN**



Donostia Uliatik San Sebastián desde Ullia



KONTUAN HARTU BEHARREKOAK A TENER EN CUENTA

- Ekaitza eta olatu handiak dauden egunetan, Pasealeku Berria itxita egon daiteke ibilgailuentzat eta oinezkoentzat. Hori saihestu behar izanez gero, Urgull mendira igotzen den bideetako bat har dezakezu, eta ikuskizuna urrutitik gozatu, edo Alde Zaharra zeharkatu.
- En días de temporal y oleaje demasiado fuerte el Paseo Nuevo puede encontrarse cerrado al paso de vehículos y peatones. De tener que evitarlo, puedes tomar uno de los caminos que sube al monte Urgull y disfrutar del espectáculo desde la distancia, o atravesar la Parte Vieja.



TELÉFONO INTERESGARRIAK TELEFONOS DE INTERÉS

Turismo bulegoak Oficinas de Turismo Pasai Donibane Donostia-San Sebastián	943 34 15 56 943 48 11 66
Larrialdia Emergencias	(112) SOS DEIAK

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/

KUTRAIA ► DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

LEYENDA

E9 - GR® 121	Hondartza Playa	Taberna/Jatetxea Bar/Restaurante	Medikua Servicio médico
Beste GR batzuk Otros GRs	Ikuspegi panoramikoak Vistas panorámicas	Ostata Afojamiento	Farmazia Farmacia
Donejakue Bidea Camino de Santiago	Eraikin erlijioso Edificio religioso	Denda Tienda	Tren geltokia Estación de tren
Natura 2000 sarea Red Natura 2000	Interesgunea Punto de interés	Diru kutxa Cajero	Museoa/Interpretazio-zentroa Museo/Centro de interpretación
Iturria Fuente	Intereseko monumentua Interés monumental	Ospitalea Hospital	Turismo bulegoa Oficina de turismo
Atsedengunea Área recreativa			

Donostia/San Sebastián Km. 11 Zurriola Km. 8 Kutraia Km. 6